



**Arartekoaren 2018R-347-18 Ebazpena, 2018ko abuztuaren 8koa. Horren bidez, Mungiako Udalari gomendatzen zaio herritar batek aurkeztutako Euskera Eskura txartela itzultzeko eskaera onartzeko.**

### Aurrekariak

1. 2018ko otsailaren 21ean, Mungiako herritar batek Arartekoarengana jo zuen, kexa bat helarazteko bere udalak ez ziolako onartu aurkeztutako eskaera bat. Zehazki, eskaera hori aurkeztu zuen 2017-2018 ikasturterako eman zioten Euskera Eskura Txartela itzultzeko, epez kanpo aurkeztu zuela jo zelako.

Jasotako kexaren arabera, irailaren 25ean, udal euskaltegirako aurre-matrikula egiterakoan, espedientearen sustatzailea saiatu zen aipatutako bonu hori entregatzen Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoetan (HAZ). Hala eta guztiz ere, kexaren arabera beti, bertan arreta eman zioten langileek adierazi zioten bere euskaltegian aurkeztu behar zuela bonua.

Adierazitakoaren arabera, horixe egin zuen eskolak hasi bezain laster eta irakasleak berriz ere bidali zuen HAZra; hortaz, azaroaren 10ean itzuli zen bulego horietara. Bonua jaso egin zioten orduan, baita kexagileak hauxe adierazten zuen idazki bat ere: "Adjunto el bono de euskara-txartela con el fin de que me sea abonado dicho importe".

2. Kexan adierazten zen, 2017ko abenduan, kexagileak euskaltegian galdetu egin zuela zergatik ez ote zitzaion bonua itzuli eta ahoz erantzun ziotela horretarako ezarritako epetik kanpo aurkeztu zuela; hain zuzen ere, epe hori urriaren 20an amaitu zen.

Hori dela-eta, 2018-01-16an, idazki bat bidali zion udalari, non erabaki horrekin ados ez zegoela adierazten zuen. Bere jarrera justifikatze aldera, adierazi zuen, gorago azaldutako terminoetan, azaroaren 10ean bonua aurkeztu aurretik, bitan entregatzen saiatu zela, bai HAZn, bai euskaltegian; horrez gain, bi kasu horietan jasotako erantzuna azaldu zuen.

2018ko martxoaren 5ean, udalak Alkatetzaren 2018ko otsailaren 27ko Dekretua bidali zion kexagileari, bere eskaera ez onartzea ebazten zuena, epetik kanpo aurkeztu izanagatik, han zuzen.

3. Arartekoak udalari helarazi zion kexagileak aurkeztutako egitateen azalpena, baita ebazpenaren motibazioaren inguruko zenbait gogoeta ere. Halaber, bere lankidetzara eskatu zion, erakunde honen aurrean adierazteko horren guztiaren inguruan egokitzat jotzen zuen guztia. Halaber, espedientearen kopia osoa eskatu zitzaion.

Udalak espedientea bidali zion Arartekoari, udal euskaltegiko zuzendariak sinatutako txosten batekin batera; horren edukia aipatuko da ondorioen atalean.





Aurrekari horiek ikusita, Arartekoari egokia iruditzen zaio ondorengo gogoetak egitea.

### Gogoetak

1. Lehenik eta behin, kexan salatzen den administrazio-erabakia behar bezala motibatuta zegoen aztertze aldera, 39/2015 Legearen 21. eta 35. artikuluetan xedatutakoa hartu behar da kontuan, baita horiek interpretatzen dituen jurisprudentzia ere, batez ere, Konstituzio Auzitegiaren 2014ko apirilaren 7ko Epaia (46/2014). Horren arabera, administrazio-egintzetan adierazitako arrazoiengan gertaeren azalpena eman eta hartutako neurrien justifikazio juridikoa jaso behar da; izan ere, arrazoi horiek jo behar dira espedientearen termino juridikoetan osatzen duten elementu ukigarri eta errealean adierazpentsat.

Irizpide horietan oinarrituta aztertu egin behar da kexagilearen eskaera ez onartzea xedatzen duen alkatetzaren dekretua; horrek termino hauetan arrazoitzen du erabakia:

- *Kontuan hartu da HABEK eta Bizkaiko Foru Aldundiak emondako informazioa*; bertan zehazten da Euskera Eskura Txartela lortzeko epeak eta modua zeintzuk diran, baita erabilera epea zein dan bere.
- *Kontuan hartu da Udal Euskaltegiko zuzendariak egindako txostena*; horren ganera, espedientearen ageri diran aurrekariak aztertuta eta indarrean dagoan legediak emoten deustazan eskumenak erabilita.

Hala eta guztiz ere, kexagileak udalari proposatu ziona, batez ere, egiazko kontu bat zen: 2018ko urtarrilaren 16an aurkeztutako idazkiak ez zuen zalantzan jartzen aurreko ikasturtea gainditzeagatik eskuratutako bonua erabiltzeko ezarritako epea, ezta azaroaren 10ean entregatzea epetik kanpo zegoenik ere; besterik gabe, adierazten zuen, data hori baino lehen, bera bitan entregatzen saiatu zela:

- Irailaren 25ean, HAZen bulegoetan; adierazitakoaren arabera, bertako langileek esan zioten udal euskaltegian aurkeztu behar zuela bonua.
- Euskaltegian, eskolak hasi zirenean; bertan, irakasleak HAZren bulegoetara bidali zuen.

Azaldutako araudi-esparrutik ondorioztatzen diren eskakizunak kontuan hartuz, udalaren 2018ko otsailaren 27ko ebazpenak ezin zuen kexagileak bost aste lehenago aurkeztutako alegazio horien baloraziorik saihestu. Izan ere, gauzak berak azaldu bezala gertatu izan balira, ez litzateke zuzenbidearen araberkoa izango bere eskaera epez kanpo egoteagatik ukatzea.

Bestalde, eskakizun hori ez zatekeen beteko espedientearen adierazitakoari jotze hutsaz. Nahiz eta interesdunak espedientearen kontsultatzeko aukera izan, eskaera





ebaztean, kexagileak eskaera justifikatze aldera egindako alegazioen inguruko iritzi arrazoitua eman behar da, labur bada ere, kontuan hartuz alegazio horiek egiazkoak diren ikertzeko egindako izapideak.

Nolanahi ere, espedientean ez da zentzu horretan inolako izapiderik jaso. Hori osatzen duen dokumentazioa aztertuta, ondorio horietarako, soilik aipa daiteke Alkatetzaren Dekretuak oinarritzat hartzen duen udal euskaltegiaren txostena; hala ere, bertako zuzendariak bakarrik adierazten du HABEk eta Foru Aldundiak ikasleei emandako informazioan urriaren 20a ezartzen zela bonua erabiltzeko epemuga gisa. Beraz, interesdunak azaroaren 10ean aurkeztu zuenez, jotzen da bere eskaera ezin dela onartu.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatu behar da kexagilearen eskaera ukatzen duen Alkatetzaren 2018ko otsailaren 27ko Dekretuak ez dituela betetzen erabakiak motibatuzko eskakizunak; izan ere, eskakizun horiek lotuta daude herritarrek eskaera baten aurrean berariazko ebazpen motibatua, behar bezala jakinarazia eta koherentea jasotzeko duten eskubidearekin, Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluan jasotako benetako babes judizialerako eskubidearen funtsezko edukia baita.

2. Kexagileak aurkeztutako alegazioen balorazioa gerora egin zen, zehazki, udal euskaltegiko zuzendariak Arartekoaren esku-hartzearen ondorioz 2018ko uztailaren 6an igorritako txosten batean. Zuzendariak berriz ere errepikatu zuen ikasleei emandako informazioak argi adierazten zuela bonua erabiltzeko azken eguna 2017ko urriaren 20a zela; horrez gain, hauxe adierazi zuen aipatutako txostenean:

- Erreklamatzailerak, 2018ko urtarrilaren 16an sinatutako eskaera orokorreko inprimakian, adierazten du aipatutako deskontu-bonua lehenengoz 2017ko irailaren 25ean aurkeztu zuela udaletxeko HAZeko bulegoetan. Halaber esaten du ikasturtearen hasieran euskaltegian aurkeztu zuela, bai eta azkenik, jakinda euskaltegian ez direla tramite horiek burutzen, berriro ere HAZera jo zuela dio, non erregistroan 2017ko azaroaren 10eko egunean jasota dagoen deskontu-bonua ekarri zuen sarrera.
- Adierazitakoari jarraituz, tramiteak buruteko lekua HAZ bada ere, berak bonua aurkeztu zuen lehenengo lekua, ez zuela data egokian egin, 2017ko irailaren 25a aurrematrikula sasoia baita oraindik, eta ez matrikula gauzatzeko epea. Horrez gain, 2017ko azaroaren 10ean bigarrenez jo zuen HAZera bonua ematera, baina azken honetan, epez kanpo.

Espedientea igortzearekin batera, hori da Mungiako Udalak erakunde honek egindako lankidetzeta-eskaerari emandako erantzuna. Izan ere, lankidetzeta-eskaera hori egin zion kexaren oinarri ziren egitateen inguruan egoki zeritzon guztia jakinarazteko, baita zalantzan jarritako administrazio-egintzaren motibazioaren





inguruan ere. Horrek aukera berria eskaintzen zuen kexagilearen alegazioen egiazkotasuna ikertzeko, adibidez, irailaren 25ean HAZn lanean zeuden langileen lekukotza jasoz, baita kexagileak bonua eskolak hasi bezain laster entregatzen saiatu zen euskaltegiko langileena ere.

Hala ere, administrazioak ez ditu kexagilearen baieztapenak ikertzen, ezta horiek ezesten ere. Espekulazio moduan argudiatuz, bere jarduketa justifikatzen du, esanez HAZn bonua aurkezteko egindako bi saiakerak, sustatzaileak espedientean adierazitakoaren arabera egin baziren ere, epetik kanpo egin zirela: lehenengoa goizegi eta bigarrena epez kanpo.

Zuzenbidean ezin da balorazio horrekin ados egon, bi arrazoi hauengatik:

- Batetik, gauzak kexagileak aipatu bezala gertatu izan balira, irailaren 25ean, HAZn jarduketa ez ziratekeen izango Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan jasotako eskubideetatik administrazioarentzat ondorioztatzen diren eskakizunen arabera, ezta Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua aitortutako administrazio onerako eskubideak eragindako eskakizunen arabera ere. Euskal administrazio guztiek eskakizun horiek bete behar dituzte burutzen dituzten jarduketetan eta erakunde honek ez dauka inolako zalantzarik Mungiako Udala konprometitu dagoela horiek betetzearekin, hain zuzen, herritarrei ematen dien arreta hobetzeko. Beraz, horien arabera, euskaltegira bidali beharren, herritarrentzako arreta zerbitzuak kexagileari jakinarazi behar zion bonua aurkezteko leku egokian zegoela baina astebete geroago aurkeztu ahalko zuela, hori baitzen bonua entregatzeko ezarritako epea hasteko falta zen denbora.
- Bestalde, baliteke egia izatea kexagileak esaten duena eta udalak ezesten ez duena, hau da, bonua euskaltegian aurkezten saiatu zela eskolen hasieran; hala, horrela izatekotan, epe barruan aurkeztu egin zen.

Izan ere, kexagileak HAZra egindako lehenengo bisitan jaso zuela adierazten duen informazioa bat dator txostenak aipatzen duen informazio-liburuxkak berak jasotzen duenarekin, hau da, adierazten da bonu hori euskaltegian bertan erabili behar dela (erabili hori "aurkeztu" esanahiarekin ulertu behar da, horretarako ezartzen den epea, egia esan, matrikularen hasieratik eta urriaren 20ra arte bitartekoa delako).

Hala ere, egia da udalaren barne-antolakuntzarako premiek justifika dezaketela eskaera bestelako udal zerbitzu batek jasotzea, kasu honetan, HAZk. Aurrekoa gorabehera, herritarrentzako zerbitzuaren eta administrazio onaren ikuspegitik, herritar bat jasotako informazio ofizialak bertan entregatu behar zela hitzez hitz adierazten zuen tokian





aurkezten saiatu izana ezin da alde batera utzi eskubidea gauzatzeko eska ziezaiokeen eginbidea erakutsi ote zuen aztertzerakoan, behintzat informazio berak adierazitako epeak betetzeari dagokionez.

Azaldutako gogoetek eta horietatik atera daitekeen ondorioak azken zentzu juridikoa lortzen dute, erakunde honen ustez, Herri-administrazioek uneoro bermatu behar duten fede oneko eta konfiantza legitimoaren printzipioen esparruan, hain zuzen ere, 40/2015 Legearen 3.1.e) artikulua xedatzen duenaren arabera. Horiei jarraituz, kasu honetan, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2010-01-26ko Epaiak jasotzen duen hausnarketa bera aplikatu daiteke (3371/2006). Hala, azaroaren 26ko **30/1992 Legearen** manu berbera aipatzen du:

*“No es leal reprochar a otro no haber hecho algo que, en realidad, ya ha hecho. Y justificar esta imputación en la inobservancia de formas y plazos previstos en la ley no deja de ser un abuso de los requisitos formales, algo que ha sido tradicionalmente visto como uno de los supuestos arquetípicos de vulneración del principio general de la buena fe”.*

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egiten da:

## GOMENDIOA

Mungiako Udalarik gomendatzen zaio, azaldutako gogoetak aintzat hartuz, kexagileak 2017-2018 ikasturterako Euskera Eskura Txartelari dagokionez egindako eskaera ez onartzea xedatzen duen Alkatetzaren Dekretua indargabetzeko eta, dagozkion izapideak burutu ostean, bonua itzultzeko eskubidea aitortzen duen ebazpen berri bat eman dezan.

